

BERRIA.INFO

Papereko edizioa Asteartea, 2007ko martxoak 20

HARIAN

Behatokia eta EHE Okzitanian

BREZIERS. Okzitanieraren aldeko manifestazioan parte hartu dute Behatokia eta EHEeko ordezkariak, beste 20.000 lagunekin batera, Breziarsen (Okzitania). Martxan egotearekin batera, okzitanieraren alde lanean ari diren elkarteekin harremanak lantzeko baliatu dute bidaia euskal ordezkariak. Azaldu dutenez, «okzitanierak, euskarak bezala, Frantziako Estatuaren zapalkuntza jasaten du». Okzitanierak bi milioi hiztun izan arren eta sei milioi lagun ulertzeko gai badira ere, Frantziak ez diola izaerarik aitortzen salatu zuten manifestariak. Okzitaniera bizitzako eremu guztietara zabaltzeko eskatu zuten ere.